



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP. KODEA 2026PUNT0004
COD. EXP.

ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	ALDIAN BEHINGO DIRULAGUNTZAK
TITULARRA TITULAR	AZKOITIKO UDALA
HELBIDEA DIRECCIÓN	AZKOITIA
NAN DNI	P2001800H

IRAGARKIA

2026ko martxoaren 5ean, Alkatearen Dekretuz, honako ebazpena onartu da:

LEHENA.- Merkataritza bonuak saltzeko deialdia onartzea Azkoitiko txikizkako merkataritza eta ostalaritza sustatzeko.

BIGARRENA: 2026ko ekitaldiari dagokion deialdia BDNS plataformaren bidez GAOn, udaletxeko iragarki ohelean, gardentasun atarian eta prentsan argitaratzea ondoko edukiarekin:

1. Diru-laguntzaren xedea.

Deialdi honen xedea da Azkoitiko merkataritza bonuen programaren eskaerak erregulatzea eta laguntzak ematea.

2. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntza hau emateko gastua onartu da ondokoaren arabera:

8000.480.431.50.02 2026 Merkataritza eta ostalaritza arloko hainbat dirulaguntza 20.000 €

3. Bonuen ezaugarriak eta baliatzeko epea.

3.1.- Deialdi honetan bonu bakoitzaren zenbatekoa, balioa eta trukatzeko prozedura honakoa da:

- Diruz lagunduko den zenbatekoa %50ekoa izango da, bonu bakoitza 30 € kostatuko da eta 60 €ko balioa izango du.

- Parte hartuko duen saltoki bakoitzean kartel bat jarriko da, bezeroak establezimendu bakoitzean ze xartel erabili dezakeen jakiteko.

ANUNCIO

Mediante Decreto de Alcaldía de fecha 5 de marzo de 2026, se ha aprobado la siguiente resolución:

PRIMERA: Aprobar la convocatoria para la venta de los bonos de comercio para fomentar el comercio minorista y la hostelería de Azkoitia.

SEGUNDA: Publicar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2026 en el BOPV a través de la plataforma BDNS, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, en el portal de transparencia y en la prensa, con el siguiente contenido:

1. Objeto de la subvención.

Es objeto de la presente convocatoria la concesión de las ayudas y la regulación de las solicitudes del programa de Bonos de comercio de Azkoitia.

2. Importe de la subvención.

Para la concesión de esta subvención se ha aprobado la siguiente dotación:

8000.480.431.50.02 2026 Subvenciones varias comercio y hostelería 20.000 €.

3. Características y plazo de los bonos.

3.1.- En esta convocatoria el valor de cada bono, su validez y el procedimiento para canjearla es la siguiente:

- La cuantía subvencionable será del 50%, cada bono costará 30 € y tendrá un valor de 60 €.

- En cada establecimiento que participe en la campaña se colgará un cartel para que el cliente pueda identificar qué tarjeta puede usar en él, dependiendo del sector.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

-Bonu bakoitzak 10€ko sei txartel edukiko ditu, eta zerbitzu ezberdinak bereiziko dituen koloreetan sailkatuko dira:

Arrosa: elikadura, harategiak, arrandegiak, frutategiak, eta edari-dendak.

Laranja: kafetegiak, okindegiak, jatetxeak, tabernak, gozotegiak, goxoki-dendak eta baserriko ekoizleak (Azoka). Txartel hau 5€tako bi zatitan banatuta egongo da.

Berdea: moda, oinetakoak, osagaiak, kirol dendak, mertzeriak eta bitxitegiak.

Urdina: ileapaindegiak, estetika, masajeak, dentistak, podologia, optikak, farmaziak, parafarmaziak, lurrindegiak, drogeriak eta belar-dendak.

Morea: zerbitzuak, kopistegiak, papertegiak, bidaiak, aholkularitza, gasolindegia, lora-denda, iturgintza, kristaldegia, dekorazioa, burdindegiak, elektrogailuak, estankoak, tindategiak, informatika, pentsu-dendak, auto eskola, aseguru-etxeak eta argazki denda.

Horia: Orokorra – Establezimendu guztietan erabili ahal izango da.

3.2.- Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko.

3.3.- Bonuak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere itzuliko balio horren zenbatekoa.

3.4.- Bonuak 2026ko apirilak 24 ostiralean ipiniko dira salgai, on-line eta aurrez aurreko salmentan. Bonuak erabiltzeko epea 2026ko ekainaren 21a izango da.

3.5.- Parte hartu ahalko dute diruz lagundu daitekeen jardueraren esparruan sartzen diren Azkoitiko txikizkako merkataritzako eta ostalaritzako establezimendu guztiak.

4. Parte hartzeko baldintzak eta prozedura

Merkataritza bonuen programan parte hartzeko aukera izango dute bonuak hartu eta ordainketa modu gisa onartzen dituzten Azkoitiko establezimenduek. Hauek pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke, beti ere, Jardueraren helburu nagusia izan beharko da kontsumitzaileari

- Cada bono consta de seis papeletas, cada una con un valor de 10€ y distinto color para diferenciar los establecimientos en los que se podrán canjearlos:

Rosa: alimentación, carnicerías, pescaderías, fruterías, y tienda de bebidas.

Naranja: cafeterías, panaderías, restaurantes, bares, pastelerías, chucherías y productores de caseríos (Mercado). Este bono se dividirá en dos partes de 5€.

Verde: moda, calzado, complemento, tienda de deportes, mercerías y joyerías.

Azul: peluquería, estética, masaje, dentista, podología, óptica, farmacia, parafarmacia, perfumería, droguería y herboristería.

Morado: sector servicios, imprentas, papelerías, viajes, asesorías, gasolinera, floristería, fontanerías, cristalería, decoración, ferretería, electrodomésticos, estancos, tintorería, informática, piensos, autoescuela, aseguradoras y tienda de fotos.

Amarillo: General – Se podrá utilizar en todos los establecimientos.

3.2.- Si el importe de la compra fuera inferior al importe del bono, la diferencia no será devuelta en metálico.

3.3.- Los bonos no podrán ser canjeados en metálico ni devueltos en ningún caso.

3.4.- Los bonos se pondrán a la venta, on-line y presencial, el viernes día 24 de abril de 2026. El plazo para utilizar los bonos será el 21 de junio de 2026.

3.5.- Podrán participar todos los establecimientos de comercio minorista y hostelería de Azkoitia que se encuentren en el ámbito de la actividad subvencionable.

4. Condiciones y proceso de adhesión.

Podrán adherirse al programa de Bonos de comercio aceptando comercializar y recibir el mismo como medio de pago, aquellos establecimientos del municipio de Azkoitia que, con independencia de que sean personas físicas o jurídicas, que tengan como objeto preferente de su actividad el de la venta o prestación



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

kontsumo produktuak, ondasunak eta zerbitzuak zuzenean saltzea edo ematea.

Interesatutako pertsonak edo entitateek, udalak emandako inprimaki normalizatuan aurkeztu beharko dute diru-laguntza eskaera. Inprimaki hori, interesatuek eskuragarri izango dute Herritarren Arreta Zerbitzuan eta Azkoitiko udaleko web orrian (www.azkoitia.eus). Eskaerak, iragarki hau argitaratzen denetik apirilaren 13ra arte aurkeztu daitezke.

Programan parte hartu duten saltokietan jaso dituzten merkataritza bonuak trukatzeko prozedura honakoa da: Trukea egiteko, jasotako merkataritza bonuak eta eskaera orria eraman beharko dira harrera bulegora. Trukea astean behin egingo da. Hobariaren xede den zenbatekoa dokumentazioa egiaztatu ondoren ordainduko da, jaso eta gehienez ere hilabeteko epean eta banku transferentzia bidez. Partehartzen duten establezimenduen bonuak trukatzeko epea 2026ko uztailaren 3an bukatuko da.

4.1. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Eskabide-orria behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Zinpeko aitorpena; non beste batzorde, erakunde, organismo, eta abarrei egindako diru-laguntzen eskaerak jasoko diren, edo, hala badagokio, eman zaizkien diru-laguntzenak.
3. Eskatzaileak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria (baldin eta lehendik aurkeztu ez bada edo aldatetaren bat egon bada).

4.2.- Eskatzaileari jakinarazten zaio Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo dituela datu-bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik eta beste administrazio batzuetatik oinarri hauetan ezarritako ondorengo baldintzak. Eskatzaileek egiaztapen horren aurka egiteko aukera izango dute; kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

directa al o la consumidor/a de productos, bienes de consumo y servicios.

Las entidades o las personas interesadas presentarán las solicitudes de adhesión en el impreso de instancia elaborado por el ayuntamiento, que se facilitará a todas las personas interesadas tanto en el Servicio de Atención a la Ciudadanía y en la página web municipal (www.azkoitia.eus). Podrán solicitarlo hasta el 13 de abril de 2026, contando desde la publicación de este anuncio.

El procedimiento de canje de los bonos recibidos por los comercios adheridos al programa es la siguiente: El canje deberá efectuarse mediante la entrega de los bonos recibidos junto con la solicitud en la oficina de atención al ciudadano. Este canje podrá ser efectuado una vez por semana. El importe objeto de bonificación será ingresado una vez comprobada la documentación, en el plazo máximo de un mes desde su recepción y mediante transferencia bancaria. El plazo para el canje de los bonos, para los establecimientos participantes, finalizará el 3 de julio de 2026.

4.1. Documentación a presentar:

1. Impreso de solicitud debidamente cumplimentado y firmado.
2. Declaración jurada en las que se haga constar, en su caso, la existencia de otras solicitudes de subvención realizadas ante otros departamentos, instituciones, etc. y, en su caso, las subvenciones recibidas.
3. Documento expedido por una entidad bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por el solicitante (siempre que no se haya entregado con anterioridad o que se haya producido algún cambio).

4.2. Se informa al solicitante, que el Ayuntamiento de Azkoitia va a verificar los siguientes requisitos establecidos en estas bases, desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones. Los solicitantes tendrán la opción de oponerse a esa verificación, en cuyo caso deberán presentar la documentación pertinente.

Servicios que se solicitarán mediante la plataforma de



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Datu-bitartekaritzako plataformaren bidez eskatuko diren zerbitzuak: A. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia: - Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun-datuen kontsulta eta egiaztapena. B. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak: -Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta C. Gizarte Segurantzako Diruzaintza orokorra: - Gizarte Segurantzaren betebeharrak egunean izateari buruzko kontsulta. Baldintzak egiaztatu ondoren, parte hartzen duten establezimenduei, beharrezko dokumentazioa eta jarraibideak emango zaizkie, bezeroak establezimenduan erabili dezakeen txartela adierazten duen kartelarekin. Hortik aurrera onartu ditzakete bonuen txartelak. 5. Merkataritza bonuen banaketa. 1) Erosketa bonuak <u>online edo aurrez aurre</u> erosi ahal izango dira: a) <u>Online, 2026ko apirilaren 24, ostiraletik aurrera</u>: 200 bonu ipiniko dira salgai. Erosketa egiterakoan NAN zenbakia eta telefonoa eskatuko dira. Bonua internet bidez erosten duenak, erosketa egin eta bi egun pasa ondoren, modu honetan bakarrik jaso ahal izango du: -Azkoitiko Udaleko Herritarren Harrera Bulegoan astelehenetik ostiralera 7:30etik 15:30era eta Herrixen Azkoitiko Merkatarikartean 15:30etik 16:45era. b) <u>Aurrez aurrekoa, 2026ko apirilaren 24 ostirala</u>: "Kontzejupe"an (Udaletxe azpian) ipiniko dira salgai 466 bonu: -10:00etatik 13:00era 266 bonu arte -17:00etatik 19:00etara 200 bonu arte Erosketa egiterakoan NANA eskatuko da eta bakoitzak gehienez bi bonu eros ditzake. Bonu guztiak salduko ez balitz, Azkoitiko Udaleko Kultura Sailean egongo dira salgai apirilaren 27 astelehenetik aurrera, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.	intermediación de datos: A. Dirección General de la Policía: - Consulta y verificación de datos de identidad, de cada una de las personas demandantes de la ayuda. B. Diputación Foral de Gipuzkoa y Haciendas forales: - Consulta de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias. C. Tesorería General de la Seguridad Social: - Consulta de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones de la Seguridad Social. Una vez verificada los requisitos, a los establecimientos adheridos se les facilitará la documentación e instrucciones necesarias con el cartel para que el cliente pueda identificar qué tarjeta puede usar y podrán empezar a aceptar las tarjetas correspondientes de los bonos. 5. Distribución de los bonos de Comercio. 1. Los bonos de compra se podrán adquirir <u>on line o de forma presencial</u>: a) <u>On line, a partir del viernes 24 de abril de 2026</u>: se pondrán a la venta on line 200 bonos. A la hora de realizar la compra se solicitará el número de DNI y teléfono. El usuario/a que adquiera el bono por internet, lo podrá recoger, pasados dos días de hacer la compra, solamente de esta manera: -En la Oficina de Atención al Ciudadano del Ayuntamiento de Azkoitia de 7:30 a 15:30 y en la Oficina de la Asociación de Comerciantes Herrixen de 15:30 a 16:45, de lunes a viernes. b) <u>Presencialmente, el viernes 24 de abril de 2026</u>: se pondrán a la venta en "Kontzejupe" (bajo del Ayuntamiento) la cantidad de 466 bonos: -de 10:00 a 13:00 hasta 266 bonos -de 17:00 a 19:00 hasta 200 bonos A la hora de realizar la compra se solicitará el DNI y se podrán adquirir un máximo de dos bonos. En caso de que no se vendieran todos los bonos, se pondrán en venta en el Departamento de Cultura del Ayuntamiento de Azkoitia, a partir del lunes 27 de abril de 9:00 a 14:00 de lunes a viernes. 2. Los bonos de comercio estarán a disposición
---	---



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2. Merkataritza bonuak 18 urtetik gorako pertsonak izango dituzte eskuragarri. 3. Bonuak modu arduratsuan erosi eta erabili beharko dira, eta kontuan hartu beharko da bonurik edo ordaindutako zenbatekorik ez dela itzuliko berauek galdu, ahaztu edo ezjakintasunagatik sortu daitezken bestelako egoerengatik. 6. Diru laguntzen indarraldia. 1. Merkataritza bonuak, ordainketa modu gisa, Azkoitiko udalerrian bakarrik erabiliko dira. 2. Merkataritza bonuen indarraldia, eskuratzen diren unetik, 2026ko ekainaren 21 arte izango da eta behin epea pasa ondoren ez dute baliorik izango. 3. Kasu guztietan, epe horiek aldatu ahal izango dira, antolaketa inguruabarrek edo bestelako arrazoiek hala gomendatzen badute. 7. Araudia Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan honako arauak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala); eta Azkoitiko Udaleko Diru-laguntzen Oinarri Orokorrak eta Oinarri Espezifikak (GAO, 54 zk., 2023ko martxoaren 20a). 8. Errekurtsoak Deialdi honen aurka Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkeztu daiteke bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian eta Berraztertze Errekurtsoa deialdi honen ebazpenaren aurka hilabeteko epean. Epeak deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen. ALKATEAK	de personas físicas mayores de 18 años. 3. La compra y utilización de los bonos deberá realizarse de forma responsable, teniendo en cuenta que ningún bono o importe de este, será devuelto por otras circunstancias que puedan derivarse de su pérdida, olvido o desconocimiento. 6. Vigencia de las ayudas. 1. Los bonos de comercio como medio de pago se limitarán en exclusiva al municipio de Azkoitia. 2. Los bonos podrán utilizarse desde el momento de su adquisición, hasta el 21 de junio del 2026, fuera de plazo no tendrán ningún valor. 3. En todos los casos, estas fechas podrán modificarse si las circunstancias u otras razones organizativas así lo aconsejan. 7. Normativa Para todo aquello no establecido en esta convocatoria se estará a lo dispuesto en: la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre (Boletín Oficial del Estado de 18 de noviembre); el Reglamento que la desarrolla, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (Boletín Oficial del Estado de 25 de julio); las Bases Generales del Ayuntamiento de Azkoitia y Bases Específicas (BOG, nº 54 de 20 de marzo de 2023). 8. Recursos. Contra la presente convocatoria cabe interponer Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses y Recurso de Reposición contra la resolución de esta convocatoria en el plazo de un mes. El plazo comenzará al día siguiente a la publicación de esta convocatoria. LA ALCALDESA
---	--

KULTURA DEPARTAMENTUA – Tel . 943 857170 / Fax. 943 852140 - kultu@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO PLAZA Z/G – 20720 AZKOITIA



EKS | CSV: ESKU50ba3d38-c8f4-40fa-9db1-cd94243cfa72

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01710>
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026PUNT0004-Iragarkia/Anuncio (AZKOITIKO UDALA)